



Azken lau urteotan Kultura Sailaren lan-kide izan den Joseba Olalde Azkorreta (1959-2004) zendu zen abuztuaren 22an. Berak eginitako dira Bidegileak bildumako argazkietako asko eta asko. Goian bego!




Euskararen Aholku Batzardeak Osoko Bilkura egin du irailaren 9an Vitoria-Gasteizen, Lehendakaritzan. Bileraren gai nagusia hizkuntza politikari buruzko 2003. urteko oroitzaren aurkezpena izan da.

Oroitzan, besteak beste, honako hauek jaso dira: hizkuntza politikaren helburu eta printzipio nagusiak; Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren garapenari begira azken urteotan garatutako egitarau garrantzitsuenak; Euskal Herriko bilakaera soziolinguistikoaren datu nagusiak eta euskara biziberritzeko diru-baliabideen bilakaera herri-administrazioetan.



Dagoeneko ebazita daude Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurten argitaratuko emandako laguntza-deialdietako hiru: Euskalgintzari, Hedabideei eta Teknologia berriei dagozkienak. Guztira 5.695.162 € banatu dira. Honako hauek dira deialdiz deialdiko emaitzak: Euskalgintza (158 egitasmo, 1.001.518 €), Hedabideak (100 egitasmo, 3.793.644 €) eta Teknologia berriak (100 egitasmo, 900.000 €).



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Euskal Herriko hizkuntza-adierazleen sistema (EAS) aurkeztuko du urrian zehar. EAS euskararen egoeraz eta egiten duen bilakaeraz informazio zehatza eskuratzeko tresna da, Internet bidezkoa. Aginte publikoei, euskararen erabileraren normalizazio-prozesuan diharduten eragile eta organoei eta hiritarrei oro har, dago zuzendurik.

Informazioa eguneratuta dago, beraz, uneoro eskuragarri dauden daturik berrienak eskainiko dira. Baina, sistemaren helburua bikoitza dela kontuan izanik, hots, euskararen egoera eta bilakaera neurtzea, ahal den neurrian aurreko urteetako datuak ere eskainiko dira.

Sistemak hiru informazio-maila dauzka:

- Batetik, azpi-eremu eta adierazle bakoitzeko, azpi-eremu edo adierazle horrek adierazten duen egoera laburbiltzen duen testua dago.
- Bestetik, adierazlea bera dago, hau da, zenbakizko datuen multzoa.
- Azkenik, adierazle batzuek informazio gehigarria eskaintzen dute, txosten edota lotura interesgarrien bidez.



Euskararen Aholku Batzardean izandako gogoetaren eta hausnarketaren emaitza da irailaren aurkeztu berri den argitalpena, Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako izenekoa, Kulturgintzaren eta Komunikabideen Batzarde-atalean landutakoa.

Prensaurrekoaz gain, bestelako bilerak eta aurkezpenak ere egingo dira, arloko zenbait eragilerekin, gogoetaren berri emateko eta txostenaren atal eta ondorio nagusiak zabalatzeko.

Argitalpena laster izango da eskuragarri HPS-ren web gunean (www.euskadi.net/euskara).



Laster batean sinatuko da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Topagunearen arteko hitzarmena. Hitzarmenari esker, tokian tokiko euskara elkarteek daramaten jarduera hedatzeko, garatzeko eta prestakuntzan eragiteko Topaguneak beharrezkoa duen oinarritzko azpiegitura finantzatu da. Zeregin horretarako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 90.000 euro jarriko ditu. Aipatutako federazioa duela zazpi urte jaino zen. Gaur egun 75 elkarte biltzen ditu bere baitan.



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Debagoieneko Mankomunitateak **Idatzia**kiak: etxejabeen komunitateetako agiriak izeneko liburuxka argitaratu du.

Argitalpen honek etxejabeen komunitateetan erabili ohi diren idazkien ereduak jasotzen ditu: atariko en batzar nagusirako deia, bilera aktak, bilera deia, zorren egoeraren berri ematea, zorrak ordaintzeko eskatzea, balantze ekonomikoa, errotuluak, etab. Liburuak hiztegia dakar bukaeran, bai eta CD bat ere, idatzien erabilera errazteko.


Lana joan den urtean argitaraturiko *Idatzia*kiak liburuaren bigarren zenbakia da eta hizkuntzaren normalizazioa du helburu.

Ramon Labaien sailburu ohiak jaso du aurten Rikardo Arregi sarietako ohorezko aipamen berezia. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu izan zen garaian Labaienen Euskal Telebista sortzeko egindako lana goratu zuen epaimahaiak. Sarien kariatara, argitalpen berezia kale-ratu zuen Andoaingo Udalak *Ramon Labaien. Euskal Telebista, hutsean sortua* izenburupean.



Gainerako sarietako dagokienez, *Berria* egunkariako Jose Mari Pastorrek jaso zuen sari nagusia, Euskadi Irratiko Madrigo berriemaile Aritz Agirrek Kazetari *Berria* saria, eta ETBko "Post-data" saioak, berriz, aipamen berezia.

Gainerako sarietako dagokienez, *Berria* egunkariako Jose Mari Pastorrek jaso zuen sari nagusia, Euskadi Irratiko Madrigo berriemaile Aritz Agirrek Kazetari *Berria* saria, eta ETBko "Post-data" saioak, berriz, aipamen berezia.



Bi lan berri argitaratu dira **Euskal Biblioteka Elebiduna** izenekoaren baitan: Juan Kruz Igerabideren *Mailu isila / El martillo silencioso* da bata eta bestea, berriz, Javi Cilleroren *Agur Hollywood / Hollywood me mata*. Dagoeneko bost dira Jon Kortazarrek zuzentzen duen bildumak kaleratu dituen liburuak. 2001ean kaleratu zen lehen lana, Miren

M. Billelabeitiaren *Gramática y usos lingüísticos*, eta Jon Kortazar eta Miren M. Billelabeitiaren *Euskal baladak eta kantu herrikoiak / Baladas y canciones tradicionales vascas* izan zen hurrengo lana. Geroztik, Igerabideren *Hosto gorri, hosto berde / Hoja roja, hoja verde* eta Ramon Saizarbitoriaren *Kandinskyren tradizioa / La tradición de Kandinsky* argitaratu ziren Madrileko Hizkuntzalaritza Aplikaturiko Atenea Zentroaren bilduma honetan.



Badakigu noiz eta non egingo den datoren urteko *Ibilaldia*. Bizkaiko ikastolen jai handia 2005eko maiatzaren 29an izango da, Durangon. **Emon bostekoa!** Izango du lema, hitzunez euskara al bait gehien erabil dezaten aldarrikatzeko asmoz.

Durangoko Ibaizabal eta Kurutzia ikastolek antolatuko dute egun handia eta, aurreratu dutenez, Anboto mendiko magalean eratuko dute zirkuitua.

"Euskal Herria" izenari dagokion araua onartu zuen Euskaltzaindiak 2004ko uztailaren 23an. Euskaltzaindiak adierazi duenez, betidanikoa eta orokorra da "Euskal Herria" izena, egokia bezain zuzena, eta sineste eta iritzi guztien gainetikoa muga politiko-administratibo oro alde batera utzirik.



Araua onartu aurretik, Onomastika batzordeak izenaren lekukotasun ugari bildu ditu. Joan Perez de Lazarraga arabarraren testuan ageri da izena lehenengo aldiz (XVI. mendea), eta gaur arte irauten du bizirik.

(Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen txosten osoa www.euskaltzaindia.net helbidean).

Kaixo.com atariak euskaltegia jarri du on-line, HABERE-



kin elkarlanean. Interneteko euskaltegi berriak euskara ikasteko aukera eskaintzen du, doan, harpidetza bitartez. Hiztegi eta gramatika ikasgaiak ez ezik, ikasleak irakasle baten laguntza ere izango du, on-line.

Web gunea lau hizkuntzatan ageri da: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, eta munduan barreiatuak dauden diasporako euskaldunei zuzendurik dago, bereziki.

Ataria abiarazi eta hilabete orduko mila ikasle baino gehiagok emana zuen izena Interneteko euskaltegia (www.kaixo.com).

Labayru Ikastegia bera dugu hurrengo argitalpenaren ardura-duna, Mikel Zarateren (Lezama, 1933-1979) **Ipuin antzeko alegi mingotsak** izeneko lana berrargitaratu baitu, Idoia Alzibarren edizioan. Liburuak Resurreccion Maria de Azkue saria jaso zuen 1975ean eta hainbat edizio izan ditu harrezkero.



Honako edizio honetan, berriz, testua gaurko idazmoldeetara ekarri du prestatzaileak, eta ipuinei irudiak eta atal didaktikoak gehitu dizkio, Mikel Zarateren lan hau eskolan landu nahi duten irakasleei laguntza eskaintzeko asmotan.

Mikel Zarateren buruzko informazio gehiago, Bidegileak bilduman (www.euskadi.net/euskara), edo Literaturaren Zubitegian (www.armiarma.com/zubitegia).

Elgoibarko Danobat Kooperatibak muntatzaile eta diseinatzaileentzako **Tailerreko eskuliburu Teknikoa** kaleratu du. Liburuxka txiki eta erabilerraza da eta atal teknikoak, hiztegia eta Danobat-en historia eta merkatuen berri ematen du.



Danobat Kooperatibak makina erreminta arloan dihardu eta hiru urte daramatza euskara plan batean murgilduta. Plan horren haritik, 2003an hiztegi tekniko bat prestatu zuten langile eta inguruko artean banatzeko eta, aurten, enpresaren 50. urteurrena baliatuz lan sakon eta mardulagoa egin eta argitaratu dute.



P RISMA II softwarea euskaraz. Aktiboak ezagutze-ko kudeaketa-sistema horren 8.2 bertsioa euskaraz eskuragarri dute software hori erabiltzen duten enpresek. Enpresak mantentzeko sistema da (erregistroen bajak, lan-kargen txostenak, prebentziozko neurriak, stockak, alarmen bidalketa...) eta Sisteplant enpresak (www.sisteplant.com) banatzen du. Lokalizazio berria *Euskara Biziberritzeko Planak* eta *Euskadi Informazio Gizartean Planak* zabalduko lan-lerroari esker gauzatu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EJI Erek inplikazioan; itzulpen-lana, berriz, UZEI erakundearen ardura izan da. Informazio gehiago nahi izanez gero, nahikoa da Sisteplant enpresara jotzea.



I dazle Eskola abiarazi zuten iaz Euskal Idazleen Elkarteak (EIE), Eusko Ikaskuntzak, Bergarako UNEDek eta HAEEK. Ikasturtea amaiturik, **Luma berrien eleak** aldizkaria argitaratu dute, idazlegaien lanak kaleratu eta literatur sormena bultzatzeko asmotan. Lehenengo alean 34 lagunen testuak –narratioak, poesiak, komikiak, elkarriketak, iritzi artikulua...–, argitaratu dituzte, eta horietarik batzuk Interneten dira, EIEren web gunean (www.idazleak.org). Idazleen Eskolari buruzko informazio gehiago, helbide horretan bertan.

Euskal-erro-mantze Linguistika I.

Jardunaldiak antolatu ditu Eusko

Ikaskuntzak urriaren 27, 28 eta 29an Bilbon duen egoitzan. Hizkuntza eta Literatura Saileko kideei zein Historia eta Antropologiakoei zuzen-



durik daude, bai eta Filologia, Historia eta Artxibistika alorreko profesionalak, ikertzaileak eta unibertsitateko ikasleei ere. Jardunaldien helburua da euskara-hizkuntza erromanikoen eremuko linguistika ikerketa zertan den jakinaraztea.



Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua egingo da azaroaren 9tik 12ra Bilboko Euskalduna Jauregian. Bertan, azken hogeita hamar urteotan sortu den errealitatea aztertu eta hemendik aurrera egitekoak landuko da. Egun, 500 profesional eta 250 bat hedabide (egunkari, irrati eta telebista, astekari eta toki aldizkari) ari dira lanean Euskal Herrian.

Kongresuaren helburua da profesionalak, Administrazioa eta ikasle-irakasleak bilduko dituen foroa sortzea.

Euskarak Etxoraturik da uzka

atzerriko zenbait ikasle, uda Euskal Herrian eman baitute euskara hobetzen.

Alde batetik, Alemaniatik etorritako ikasle talde batek euskara ikastaroa egin zuen Gernikan, hiri honen eta Alemaniako Pforzheim-en artean dagoen anaigoa baliatuz.

Beste alde batetik, berriz, Poloniako hamahiru ikasleek Arantzazun igaro zuten udaldia, euskararen ezagutza sakontzen. Ikasle horietarik batzuk lehenago ere izanak ziren Euskal Herrian euskara ikasten. Izan ere, egun, Poloniako unibertsitate batzuek nahiago dute euskara ikasi,



Europar gehiago entzuten diren beste zenbait hizkuntza baino (adibidez, portugesa).

Euskalkiak eta bes-telako hizkera moduak eskolan izeneko ikastaroa egin zen Bilbon joan den uztailan. Bertan parte hartu zuten adituek euskalkietara jotzeko deia egin zuten, euskara batua aberasteko asmotan. Era berean, euskalkiak lantzeko lekurik egokiena eskola dela ebatzi zuten hizkuntzalariek, esanez euskararen euskalkiak lantzeko tarte egin behar dela curriculumean bertan.



Ni kazeta-egilean a iz.

Artikulu, berri, istorio. Jean Hiriart-Urruti (1859-1915) hazpandarraren lanen antologia da, Xabier Altziabarrek prestatua eta Labayru Ikastegiak argitaratu duena.



Jean Hiriart-Urruti *Euskalduna* astekariaren arduradun izan zen hogeita bost urtez eta, aldizkaria zuzentzeaz gainera, hainbat lan argitaratu zituen bertan. Aldizkariak, bestalde, euskararen batasuna finkatzeko urrats handiak egin zituen, ortografian, morfologian eta lexikoan.



Oraingo antologian Jean Hiriart-Urruti-
ren idazlanetarik asko bildu dira, generoka, urtez urteka eta arloka jasota (politika, gizartea, euskara, mundua, Euskal Herria, Mundu Gerra...).

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es

